

BALIO PROPOSAMENA

Norbaitek bere txakurra zaindu ezin badu, bidai bat duelako edo lanarekin zerikusia duen gai batekin konpromituta dagoelako, bere maskotarekin egotea eragozten duena, ur-parke honetara eraman dezake eta han primeran zainduko dugu. Bestalde, egun zoragarri bat pasatu nahi baduzu zure txakurrarekin, gure ur parkera ere etorri ahal zara.



Horretaz aparte, hona etortzen bazara zure animaliarekin batera, momentu dibertigarriak pasatuko dituzue elkarrekin eta egun zoragarria eta ahaztezina ere pasatzeko aukera izango duzue.

Beraz, gune honek estualdi batetik ateratzeko balio ahal zaitu, ustekabe bat sortzen bazaizu eta ez badakizu non utzi zure maskota irtenbide bat eskaintzen dizu. Horrekin batera, zure animalia bere egunerokotasunetik deskonektatzeko balio du ere, egun dibertigarriagoa izan dezan eta bere errutinatik kanpo disfrutatzeke aukera izango du.



Horretaz aparte, gure ur-parkeak **segurtasuna** ematen du segurtasun eraginkorra daukagulako, bai maskotak ez alde egiteko baita parkean jolasean dabilen bitartean ezer ez gertatzeko. **Dibertsio** ziurtatua eskaintzen dugu, parkearen barruan ditugun instalazioengatik. **Tratua** oso ona izango da langileen aldetik, denek animaliak maite dituztelako eta.

Gure negozioa beste batzuekin alderatuz gauza desberdinengatik bereizten da. Alde batetik inguruan ez dago ur jolasen zerbitzu hau ematen duen beste parkerik, eta bestetik eskaintzen dugun tratua profesional eta paregabearengatik. Beraz, gure negozioa irekitzearen notizia, txakurra duten pertsonak hunkituko ditu, eta, agian, interes edo gogo handia sortuko zaie hona etortzeko eta primeran pasatzeko. Horretaz gain, gure enpresa bi motatako baliokoa izan daiteke: kuantitatiboa eta kualitatiboa. Bakoitzak gauza batean bereizten dira, adibidez, kuantitatiboa prezioan bereizten da eta kualitatiboa diseinuan bereizten da.

Prezioa aipatu dugunez, horrekin jarraituko dugu eta gure ur parkean sartu ahal izateko lau sarrera tarifa kontuan hartu behar ditugu: Lehenengo tarifan, 10€-koa da zeren eta sarrera horretan txakurra gehi pertsona edo jabea sartzen delako.



Bigarren tarifa, 5€-koa da zeren eta jabearik gabe maskota soilik etortzen bada gure ur-parkean sartu ahal izateko. Hirugarren tarifa, dohaunikoa da 15 urtetik beherako umeak ez dutelako ordaindu behar gure ur parkean sartu ahal izateko. Azkenengo tarifa laguntzailearena da eta bigarren tarifaren berdin berdina ordaindu behar dute, hau da, 5€.



Ur-parkea txirrista ezberdinez osatuta egongo da, bai maskotentzat, bai jabeentzat. Bestalde, atsedean hartzeko, bazkaltzeko, gauza guzti horiek construcciones Riol enpresa sortuko dute Leioako Unbe auzoan. Ur parkearen instalazioetan kalitatea ezin hobea izango da ur-parkea dituen txirristak berriak direlako eta ez direlako inoiz erabili. Horretaz aparte, erresistenteak dira nahi ez diren edozein istripu prebenitzeko helburuarekin.

Amaitzeko, gure ur parkean segurtasuna oso garrantzitsua da istripuak ez gertatzeko, lehen aipatu dugun bezala. Horregatik, zenbait arau jarri ditugu hori ez gertatzeko. Adibidez, zaintza bat mantenduko dugu gure parkearen instalazioetan aldaketa edo berrikuntzaren bat egin behar bada.

